


SOCIEDAD ESPAÑOLA



DESPEDIDA DEL AÑO 1944

por Baserri

-1-

Urtezarraren agurra entzun,
Kaleko eta mendiko
Zugaitz ostoak erori dira;
Geiago ez dira jeikiko.
Lurreko alaitasun guziak
nola diran egun biko,
Nere denporak bete dira-ta
igesi noia betiko.

-2-

Mundu txar onean gerra ta sua,
burruka ta iskanbilla;
Gorroto beltza dago bizirik
eta maitasuna illa.
Pakea naita ez det nik lortu;
ba-noia atseden billa,
Nere tokira datorren ori
obea izan dedilla!

Saludo del Año 1945

Agur Urtezar,beste munduan
artzazu atseden toki,
Neke astunak lurperatuta
iñola ezin zera jeiki.
Nik gizaldi au zorion,pakez,
gañeztuko det ederki,
Gaztea naiz ta ortara nator
itxaropena eduki!

La melodia está en otra hoja.